

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Eskarne Urbietta Arruti

*Azpeitia,
Gipuzkoa*

Aurkibidea



Biografia



Azpeitiko "Oriyo" etxean jaioa 1935ean. 14 urtera arte jesuitinetan egin zituen ikasketak. 18 urte zituela, Enparan kaleko kooperatiban, janari-dendan, hasi zen lanean. Zortzi urtean aritu zen bertan dendari; ezkondu zen arte.

Zintak

AZP-078

- **Proiektua:** Azpeitiko Euskara Beka
- **Elkarrizketatzailea(k):** Frantsesena, Eñaut
- **Data:**
- **Iraupena:** 57 min
- **Euskarria:** DVD
- **Kodifikatzailea:** Oruesagasti, Ainitze

Pasarteak

1. "Oriyo"-neko etxea eta inguruak

- **Erref:** AZP-078/002
- **Iraupena:** 0:01:14. **Hasi:** 00:00:13. **Bukatu:** 00:01:27

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak

Laburpena:

Azpeitiko "Oriyo"-neko etxea esaten diotenean jaio zen. Gaur egun Joan XXIII kalea da, baina Eskarne jaio zenean "Arrabal de monjas" izena zuen. Inguru horretan bakartuta zegoen etxea zen, ez zen beste etxerik inguruan. "Arrabal de monjas" kalea nondik nora zen azaltzen du: astotegian hasi, Frantziskanetako komentua, Enparan dorretxea, Belokineko etxea (gaur egun Arauntza elkartea dagoen ingurua) eta "Oriyo"-nekoa.

2. Eskarne izenaren nondik norakoak

- **Erref:** AZP-078/003
- **Iraupena:** 0:05:33. **Hasi:** 00:01:27. **Bukatu:** 00:07:00

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Euskara » Euskararekiko sentimendua

Laburpena:

Eskarne izena zergatik jarri zioten azaltzen du. Bere amonak Mercedes izena zuen eta aitak amonaren euskal izena batzokian lortu eta jarri ziola dio. Gerra aurretik familian euskal izenak zituztela dio. Euskal izena zuelako eta moja batekin izan zituen tirabirak kontatzen ditu.

3. 14 urtera arte jesuitinetan

- **Erref:** AZP-078/004
- **Iraupena:** 0:01:56. **Hasi:** 00:07:00. **Bukatu:** 00:08:56

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Prefektua zer den azaltzen du. Eskolan jesuitinetan ibili zen. Erdaraz ikasten zuten. Goizean ikasi eta arratsaldean laboreak egiten zituzten. 14 urtera arte ibili zen eskolan.

4. Asteburuetan meza nagusia eta parrokiako zinea

- **Erref:** AZP-078/005
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 00:08:56. **Bukatu:** 00:10:41

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Aisia » Kultura » Zinema

Laburpena:

Eskola garaian larunbat eta igandetan ere eskolara joaten ziren. Igande goizetan meza nagusira joaten ziren mojekin. Handik bueltan, etxean bazkaltzen zuten, eta arratsaldean mojekin paseoan ibiltzen ziren. 12-13 urterekin parrokiako zinera joaten ziren. Herrian bazen beste zinema areto bat: Luminor. Areto hori, ordea, 16 urtetik gorakoentzat omen zen.

5. Gosea eta jenero falta

- **Erref:** AZP-078/007
- **Iraupena:** 0:01:14. **Hasi:** 00:11:00. **Bukatu:** 00:12:14

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ekonomia gerra garaian

Laburpena:

Gose garaian, etxe bakoitzean kartila bat izaten zen, eta janaria errazionatuta ematen zuten. Dendetan ere ez zen nahikoa janari egoten eta ilaran egon behar izaten jeneroa eskuratzeko.

6. Litro olio 20 duro

- **Erref:** AZP-078/008
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 00:12:14. **Bukatu:** 00:14:29

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Umea zela amonak oliotara bidali zueneko pasadizoa kontatzen du. Erdi kaletik Eliz kalera bitarteko kantoian dendak zeuden, eta horietako batera bidali zuen amonak. Olorik ez zegoela esaten bazioten bertan zain gelditzeko esan zion amonak. Eskarne dendatik joaten ez, eta holako batean behintzat, bete zioten botila olio. Eskarne dendariari hoge durokoa eman zion eta hark ez zion dirurik itzuli. Etxera itzulitakoan amona ezin sinetsita zegoen ez ziotelako bueltan dirurik eman; "sasoi hartan litro olio 20 duro pagatzea zen... bueno!".

7. Olio preziatua

- **Erref:** AZP-078/009
- **Iraupena:** 0:00:53. **Hasi:** 00:14:29. **Bukatu:** 00:15:22

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Azpeitian denda dezente zeuden errazionamenduan ematen zutenak. Ogia, olio, azukrea, potajea... errazionamenduan egoten ziren. Olio oso preziatua zen. Jenero falta handia zegoen. Babak esne-gainarekin jaten omen ziren, oliorik ez zegoelako.

8. Estraperloko txerrikia

- **Erref:** AZP-078/010
- **Iraupena:** 0:00:48. **Hasi:** 00:15:22. **Bukatu:** 00:16:10

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Urtero hiltzen zuten txerria, estraperloan bada ere. Bazkaritan babak jaten zituzten, eta gainean, bada, odolkia, urdaia edo txorizoa. Noizean behin arraina jaten zuten. Gozokiak oso noizean behin izaten omen ziren.

9. Enparan kaleko kooperatiban dendari

- **Erref:** AZP-078/011
- **Iraupena:** 0:01:39. **Hasi:** 00:16:10. **Bukatu:** 00:17:49

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)

Laburpena:

18 urte zituela Enparan kaleko kooperatiban, janari-dendan, hasi zen lanean. Zortzi urtean aritu zen bertan dendan; ezkondu bitartean. Garai hartan jendea oso justu bizi omen zen. Jendeak astero kobratzen zen "kintzena", eta dendan jende gehien larunbat iluntzetan eta igande goizetan izaten zutela kontatzen du.

10. Ezin baltsa dantzatu

- **Erref:** AZP-078/014
- **Iraupena:** 0:01:08. **Hasi:** 00:18:32. **Bukatu:** 00:19:40

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak
- Aisia » Kultura » Musika
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:

<p>25 urte zituela ezkondu zen. Bandak plazako kioskoan hamabostean behin jotzen zuen; beti pasodobleak. Garai hartan, pasodoblea soltean egiten zen dantza. San Inazio jaietan "banda de brujos" joaten omen zen herrira. Haiek jotzen zituzten piezekin "baltsean" egiteko aukera izaten omen zen, baina baltsa dantzatzeko zuena kongregaziotik botatzen zuten.</p>

11. "Baltsean" egin nahi zuen kuadrilla

- **Erref:** AZP-078/015
- **Iraupena:** 0:01:22. **Hasi:** 00:19:40. **Bukatu:** 00:21:02

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

<p>Ba omen zen herrian kuadrilla bat dantzan, "baltsean", egin behar zela esaten zebilena. Aurretik giroa berotu eta hasi ziren batzuk dantzan plazan, baina berehala aguazilak banatu egin zituzten. Plazan egundoko iskanbila egon zela azaltzen du Eskarne. Gauzak horrela, alkateak banda erretiratu arazi zuen. Handik bi astea bandak berriz jo zuen plazan, baina jende ez zen ausartu dantzan egitera.</p>

12. Erromeriak

- **Erref:** AZP-078/016
- **Iraupena:** 0:01:02. **Hasi:** 00:21:02. **Bukatu:** 00:22:04

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

Urrestillako festetara joan ohi zen. Dantza lotuan egitera Elosura, Aizpurutxora edo Xoxotera joan behar izaten zen. Jendea bizikletan joaten zen erromeria horietara, baina oso jende gutxi joaten omen zen. Eskarne kalean ibili ohi zen.

13. Neska-jantzian ibiltzeagatik atxilotu zituztenekoa

- **Erref:** AZP-078/017
- **Iraupena:** 0:03:43. **Hasi:** 00:22:04. **Bukatu:** 00:25:47

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Inauteriak

- Aisia » Jai-giroa » Zezenak

Laburpena:

Inauterietan zezena izaten zen pilotalekuan. Urte batean, inauteri festa batzuetan hiru mutilek garbitokitik eta "Olki" tabernara arteko bidea neska-jantzian egin omen zuten. Hiru gazteak "ixpixiyora" (udaltzaingora) eraman zituzten. Orduan, gazte asko "ixpixiyo" aurrean jarri eta barruan zeudenei kantuan egon omen ziren. Ez zituzten hurrengo goizera arte askatu. Jesuitek herrian botere handia zutela dio.

14. Dantza egiteagatik alkateak kargu hartu

- **Erref:** AZP-078/018
- **Iraupena:** 0:02:16. **Hasi:** 00:25:47. **Bukatu:** 00:28:03

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Udala
- Aisia » Kultura » Dantza
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren jarrera

Laburpena:

Inazio Egaña alkateak, Gaztelumendi jesuiten kongregazioko zuzendariak eta udaleko hiru zinegotzik epaimahai moduko bat egin zuten plazan dantzan egin zutenei kargu hartzeko. Bezperan gutunak bidali zizkien jendeari udaletxean presentatzeko esanez. Mutilei zein neskei egiten zien hori.

15. "Barrura" sartzeko mehatxua

- **Erref:** AZP-078/019
- **Iraupena:** 0:00:51. **Hasi:** 00:28:03. **Bukatu:** 00:28:54

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Inauteriak

Laburpena:

Inauterietan pilotalekukoan zezena zebilela hiru mutil neska-jantzita gertu ziren. Batzuek txaloka hartu zituzten. Beste batzuk, berriz, txistu jo zein, baina txaloak gehiago omen ziren. Lehen zerbait eginez gero "barrura" sartzeko mehatxua azkar botatzen omen zuten.

16. Osaba espetxean sartu zutenekoa

- **Erref:** AZP-078/021
- **Iraupena:** 0:01:42. **Hasi:** 00:29:27. **Bukatu:** 00:31:09

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

Azpeitiko espetxeaz hitz egiten du. Gerra denboran, Eskarneren osaba bat bertan egon zen atxilotuta. Antza, osabak iloba bati egunkaria ez saltzeko esan zion eta horregatik atxilotu zuten. Lau egunera askatu zuten. Amonari kartzelari buruz entzundako kontuak aipatzen ditu.

17. Enparan Gain baserrira irteerak

- **Erref:** AZP-078/028
- **Iraupena:** 0:00:40. **Hasi:** 00:46:13. **Bukatu:** 00:46:53

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak

Laburpena:

<p>Gazte denborako irteera guztiak Enparan Gain baserrira egiten zituzten, etxetik hurre baitzuten. Han taloak, gaztainak... jaten zituzten. Umetan ez zuen gose handirik pasa.</p>

18. Eskutrapua andaratzat

- **Erref:** AZP-078/029
- **Iraupena:** 0:01:01. **Hasi:** 00:46:53. **Bukatu:** 00:47:54

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

Sokadantzan eta "kinkirriñean" jolasten zuten. "Kinkirriñean" nola jolasten den azaltzen du. Ez zuten andarerik; sukaldeko eskutrapua bilduta ibili ohi zuten panpina moduan. Ez zuten jostailurik.

19. Ezin euskaraz egin

- **Erref:** AZP-078/030
- **Iraupena:** 0:01:09. **Hasi:** 00:47:54. **Bukatu:** 00:49:03

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren jarrera
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Eskolan ez zieten euskaraz hitz egiten uzten. Euskaraz eginez gero zigortu egiten zituzten. Klean ere arreta deitu izan omen diote euskaraz hitz egiteagatik. Behin Lizarran (Nafarroa) pasatutakoa kontatzen du.

20. "Kaniketan" mutilak bezala

- **Erref:** AZP-078/031
- **Iraupena:** 0:01:42. **Hasi:** 00:49:03. **Bukatu:** 00:50:45

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

Tortolosean eta kaniketan jolasten zuten. Torlosean nola jolasten den azaltzen du. Kaniketan ibiltzea mutilen jokoa zela esaten zioten, lurrean botata ibiltzen zirelako.

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com